



ALEA

arabako aldizkaria



GAZTE PREKARIOEN SAREA
**BIZITZA DUINAK,
NORABIDE BERRIAK**

LAGUNDU HIRIA GARBI MANTENTZEN

**Zabor-poltsak edukiontzi
eta buzoien barruan utzi**



**Etxetresnak eta tamaina handiko objektuak biltzeko DOAKO zerbitzua
945 28 65 00**



ALEA 221

2020-01-10 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA: MIKEL
BURUAGA

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Gazte Prekarioen Sarea sortu dute gazte langileak biltzeko.
- 8 **Protagonista.** Agustin Azkarate, Arkeologia katedraduna EHUn.
- 14 **Iritzia.** Txema Ramirez de la Piscina, 'Urte libre on'.
- 15 **Iritzia.** Aintzane Urrutia, 'Existitu'.
- 16 **Sarea.** "Inbestidurasaioa".
- 17 **Irudia.** Errekabarri eskola zabaldu dute.
- 18 **Gizarte.** Arabako argazki sozioekonomikoa: Trebiñu.
- 20 **Gizarte.** Quejoko erletxea babestuko du Gaubeako Udalak.
- 22 **Datuak eta laburrak.**
- 24 **Kultura.** 51. Bertso Eguna Aramaion.
- 25 **Kultura.** Danzalava jaialdiaren 4. edizioa.
- 26 **Gure Bazterrak.** Labraza, pote txikian edertasuna.
- 28 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibxu Ugarte

Juanma Gallego

Mikel Buruaga

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.
Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailaren edo bestelako
orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Txema Ramirez de la Piscina, Aintzane Urrutia.

Prekarietatearen aurkako iparrorratza

2019ko abenduan jaino zen GPS, Gazte Prekarioen Sarea, Gasteizko sektorerik prekarizatuenetan ari diren langile gazteen indarrak batzeko helburuarekin. Hitz jokotik harago, kolektibo berria iparrorratz baten irudiarekin identifikatu dute, prekarizazio prozesuaren aurrean "norabide berriak" bilatzeko asmoz.

Testua eta argazkiak:
Mikel Buruaga.

Gasteizko negu hotza bidelagun, Zaramagako bihotzean elkartu gara GPS kolektiboko kide Lara Salceda (Gasteiz, 1993) eta Urdax Bañuelosekin (Gasteiz, 1994). 1976ko martxoaren 3an hildako bost langileen argazkiek apaintzen dute XXI. mende hasierak eta merkatal zentro handien *boomak* itxiarazitako auzoko saltoki baten fatxada.

Baliteke gaur egungo gazteek hiria astindu zuen langile klase hura eraldatuta ikustea, identitate kolektiboak lurperatuta utzi omen dituen prozesu neoliberalaren ondorioz. Askok aldatu da testuingurua 1970. hamarkadatik eta baita mende hasieratik ere; are gehiago 2008ko krisialdi ekonomikotik aurrera.

Gure bi solaskideak hamabost urte inguruko gaztetxoak ziren oraindik krisiak eztanda egin zuenean. Gaur egun, atera al gara krisialdi hartatik? "Hamar urtean behin errepikatzen den zikloa da", uste du Salcedak, "produktzioak gora egingo du gero behera egingo duelako, eta horrela etengabe".

Eta zer utzi digu krisialdi hark? Bañuelosen aburuz, gaur egun indarrean jarraitzen duen austeritate ekonomikoa ezarri zen orduan Europako Batasunetik: "Erabaki politiko garbi bat izan zen; ordutik, langileriak ahalmen ekonomikoa galdu du eliteak aberasten ziren bitartean".

"Noraezari aurre"

Guy Standing ekonomista britainiarrek *Prekariatua: klase sozial berri arriskutsua* lana argitaratu zuen 2011. urtean, "klaserik desjabetuenaren" agerpena iragarritz. Teoriak albo batera utzita,



azken urteetan askotan entzun dugu gurasoak baino okerrago bizi den belaunaldia iritsi dela.

Baina GPSko kideek argi daukate: "Sistema honek murgildu gaituen noraezari aurre egitea ezinbestekoa da", adierazi zuten kolektiboaren berri emateko zabaldutako lehen oharrean.

Gazteriak pairatzen duen "indibidualizazio prozesu bortitzaren aurrean mekanismo kolektiboak eraikitzearen beharra" azpimarratu dute. Izan ere, "langileak antolatze orduan hutsuneak" daudela onartzen dute.

Hutsune horiek betetzeko eta lan munduan gazteek dituzten arazoei aurre egiteko asmoarekin martxan jarri direla azaldu du Salcedak: "Bere egoerari aurre egiteko orduan, noraezean ibili gara; problematika ezberdinak identifikatzeko eta iparra markatzeko ordua da". Horretarako "sentsibilitate ezberdinen topaleku" bilakatu nahi dute sarea, eta tokiko errealitatek, Gasteiztik, eragin nahi dute.

Lan-erreformak, hitzarmen kolektiboen suntsiketa, pribatizazio eta prekarizazio prozesuak edota pentsioen izozteak kokatu dituzte egoeraren muinean. "Normaltasun batean bizi omen garela eta okerrago egon gintzekela errepikatzen duten hitz magikoekin" apurta nahi dutela dio Bañuelosek.

Baina zeintzuk ote dira prekarizazio prozesu horren zantzuak Gasteizko gazteentzat?

Prekarizazioak baditu milaka aurpegi

"Gazte prekarioen" errealitatea deskribatzeko eskatu diegunean, ezaugarriak erraztasun handiz zerrendatu dituzte GPSko kideek, haien belaunaldiaren ikur bihurtu balira: behin-behinekotasuna,

Urdax Bañuelos eta Lara Salceda GPS kolektiboko kideak.

lan-aldi partzialak, ETTak, etorkizunik gabeko beak, genero-arrakala, doako praktika dualak Lanbide Heziketan, ordaindugabeko praktikaldiak, formakuntzako kontratu amaigabeak, uberizazioa, autonomo faltsuak, behartutako aparteko orduak, ikasketak eta enpleguaren bateragarritasun eza, ordutegi malgutasuna, 24 orduko disponibilitatea, jai egunetan lan egitea, kontratu eza eta abar luze bat.

Espainiako Gazte Kontseiluak emantzipazioaren inguruko datu esanguratsuak argitaratu ditu 2019an. 30 urte baino gutxiagoko gazteen %80a gurasoekin bizi da oraindik. 16 eta 29 urte bitarteko bost gaztetatik soilik bat (%18,6) emantzipatu da. Eta azken urteetako daturik ezkorrena: alokairuan bakarrik bizi nahi duen gazte batek, batez beste, bere soldataren %94a bideratu beharko luke etxebizitza ordaintzeko.

"Prekarietatea ez da soilik lan arloan ematen, egoera ekonomiko eta sozial orokorra da", baieztatu du Bañuelosek, ALEArenkin elkarbanatutako datuak aztertzerakoan. Egoera hori "modu basatienean" pairatzen duten sektoreak emakumeak, etorkinak eta gazteak direla dio, baina logika orokorrago baten barruan kokatu du: "Hau ez da kasualitatea; elite politikoei eta enpresariak lan-eskua merketzea nahi dute, haiek aberasteko".

Prozesu berri bat ez dela, baina azken urteetako erreformek "legeztatu" egin dutela dio: "Lan merkatua goitik behera aldatu eta gazteen egoera muturreraino eraman dute".

Bere kidearen arabera, gazteek lan harremanetan bizi duten prekarietatea "bizitzako esparru guztietara" zabaltzen da: "Urte askotako formakuntzara bideratu gaituzte, eta bizitzaren espektatibak oso altuak izan dira; formakuntza hori egin ostean, lan mundu prekario batera jauzi egiten dugu".

Bestalde, Gazteen Euskal Behatokiak 16 eta 29 urte bitarteko gazteen datu gehiago argitaratu ditu: EAEko emantzipazio adina 30 urtekoa da, enpleguaren behin behinekotasuna %23 igo da 2007tik eta batez besteko soldata 1.093 eurokoa da.

Datu honetan sakonduz, beste zifra esanguratsu bat: gazteen artean hain hedatuta dauden jardunaldi erdiko kontratuen batez besteko soldata 644 eurokoa da; hau da, etxebizitza bat alokatu ahal izateko prezioaren parekoa, azken datu ofizialen arabera. "Gazte gehienok dugun soldatak guztiz baldintzatzen du etxebizitza eskubidea", salatu du Salcedak.

"Lan mundutik eta lanaren problematikatik"

Gasteizko gazteek "Euskal Herriko beste edozein gazte" bizi duen antzeko egoera bizi dutela uste du Bañuelosek. Hala ere, azken hamarkadetan hiria eraldatu duten tokiko hainbat faktore aipatzen ditu: turismoaren gorakada, merkatal zentron hedapena edota Glovo bezalako enpresen etorrera, beste askoren artean.

Gazte Prekarioen Sareko kideen arabera, prekarietatearen "adierazpen basatienetako batzuk" ikus daitezke sektore horietan eta, haien ustez, Gasteizko bizi-maila altuaren "mitoak" sektore prekarizatuenek bizi duten errealitatearekin topo egiten du.

"Azken hamarkadetan jendartea esparru guztietan desaktibatuzko prozesu antolatuta bat egon da", ziurtatu dute solaskideek, gazteriarren

desmobilizazioaren ideiaz galdetuta. Hala ere, Gasteizen "antolatutako gazteria" badagoela uste dute, eta gazte mugimenduari "ekarpena lan mundutik eta lanaren problematikatik" egin nahi dio Gazte Prekarioen Sareak.

Hala ere, sindikalgintzatik gazte prekarioen sektorean eragiteko "zailtasunak" eta behin-behinekotasunaren mugak azpimarratu ditu Bañuelosek: "Lanpostu batean irauteko perspektibarik gabe gazteek ez dute euren lan baldintzen alde antolatzekeo beharrik ikusten". Gainera, "lan zentroak eraldatu eta sakabanatu" egin direla azaldu du.

Aldi baterako lanpostuetan aldarrikapenak planteatzeari "beldurra" ere hedatu dela onartu du Salcedak. "Sindikatuak langile klasea antolatzekeo tresna eraginkorra" direla uste duen arren, horiekin batera gazteen sare gisa aritzea garrantzitsua dela dio, "antolatuta ez dauden sektore prekarioak antolatzekeo eta beharren arabera dinamikak planteatzekeo". ■■■

Urtarrilean iparrorratza martxan

Abenduaren 20an lehenengo asanblada irekia egin ostean, eragile berria ezagutarazteko kanpaina abiatu dute, honen leloak dioen bezala "prekarietatea mahai gainera" eraman nahian.

Epe motzera, bi hitzordu nagusi dituzte. Alde batetik, urtarrilaren 18an, larunbatean, aurkezpen-jardunaldia antolatu dute Zaramagako M3moria Gunean "prekarizazio prozesuaren gako nagusiak" aztertzekeo. 12:00etatik aurrera, GPSren

aurkezpena egiteaz gain, hitzaldia eskainiko dute Eragin izeneko Bilboko Gazte Prekarizatuaren Asanbladako kide batek eta EHUKO irakasle Jule Goikoetxeak; azken honek 'Demokraziaren Pribatizazioa' liburua argitaratu zuen 2017an eta horren inguruko hainbat gako aztertuko ditu bertan.

Bestalde, urtarrilaren 30ean, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deitutako greba orokorrearekin bat egingo dute. Aste honetan, "lan, bizi eta pentsio duinen alde, ofentsibara salto" egitekeo asmoz Gazte Komitea sortu da Gasteizen.

Horren parte ere bada GPS. "Azken urteetan aldarrikapenen loraldi bat eman da: mugimendu feministak, pensionisten mobilizazioek edo langile borrokek kaleak hartu dituzte", eta testuinguru horretan kokatu dute greba: "Bizitzak duintzekeo aukerak badaude eta sektore ezberdinen borrokak batzekeo momentu egokia da". Azkenik, elkartzasuna zabaltzekeo deia egin dute: "Haien borroka gure borroka ere bada".



HALABEDI

"Lurralde batean utzi dugun memoriaren aztarna da paisaia"

AGUSTIN AZKARATE ARKEOLOGIA KATEDRADUNA EHU-N

Haren jarduna Arabari lotuta egon da aspalditik, eta bereziki Gasteizko Santa Maria katedralean egin duen lanagatik ezaguna da, baina asko dira jorratu dituen ikerketa leerroak. Iraganean ez ezik, orainaldian eta etorkizuneko erronketan burua duen arkeologoa da Azkarate. Testua eta argazkiak: **Juanma Gallego**.

Araban, eta, oro har, Euskal Herrian ondare hitza aipatuta berehala dator burura Agustin Azkarate (Elorrio, 1953) ikertzailea, aspalditik alor horretako erreferentzia nagusia delako. Arkeologian katedraduna izanda ere, ez du haren burua arkeologotzat hartzen, ezagutzaren langileztat baizik. Horrenbeste maite duen ezagutza hori garai berriei egokitzeko beharra azpimarratu du, beti ere ikuspuntu global bat mantenduta. Besteak beste, Euskal Herriko Unibertsitatean zuzentzen dituen GPAC Eraikitako Ondarearen Ikerketa taldea eta Kultur Paisaiak eta Ondarearen Unesco Katedra ditu horretarako tresna.

Zaila da zu harrapatzea. Azken asteotan, adibidez, Sevillan, Santiago de Compostelan edota Argentinan egon zara. Zertan ibili zara?

Sevillan kultur paisaiari eta ondareari buruzko hainbat proiekturen ebaluazioak egiten egon naiz. Santiago de Compostelari dagokionez, Xuntak ikerketa gune handi bat antolatu nahi du gai horiei buruz, eta hainbat adituren iritzia bildu nahi zituen. Dozena erdi bat aditu elkartu ginen, diseinatzen ari diren ikerketa gune hori nola izan

zitekeen eztabaidatzeko. Argentinan, Santa Fe probintziako gobernuarekin ibili naiz, EHUK hitzarmen bat sinatu duelako bertan ditugun hainbat proiektu aurrera eramateko.

Kultur paisaiak aipatu dituzu, eta horien inguruan zaude lanean. Zergatik zaindu behar dira?

Funtsean, gizakiok paisaietan bizi garelako, eta gure bizi kalitatea paisaiaren kalitatearen arabera delako. Honetan, asko aurreratu da. Unescok paisaiei buruz eta ondareari buruz beti izan du ikuspegi patrimonialista eta elitista bat: horren arabera, ohiz kanpokoak eta unibertsala dena babestu behar da. Funtsean, hori zen zaindu behar zena, eta marratik kanpo geratzen zena ez zegoen babestuta. Zorritzarez oraindik askotan mantentzen da ikuspegi tradizional hori, baina eredu hori hankaz gora jarri zen Europako Batasunak, 2000. urtean, Florentzian Paisaiaren Europako Hitzarmena sinatu zuenean. Hitzarmen horrek ikuspegi guztiz berria ezarri zuen: paisaiak ez dira soilik babestu behar, batez ere kudeatu behar dira. Eta ez soilik ohiz kanpokoak, paisaia guztiak baizik. Garrantzia berdina dute, esaterako, Pirinioetako Ordesako haranak edo Gardelegiko Zabortegeiak.



Paisaiak modu globalean aztertzeko beharra ikusten du Agustin Azkarate katedradunak. J.G.

Hortaz, politik izan ala ez, zentzu batean guztiak gizakien emaitza dira...

Hala da. Are gehiago, kultura-paisaia kontzeptua berez pleonasmo bat da. Ez dagoelako guztiz naturala den paisaiarik. Hau askotan gertatzen da: natura-paisaia eta kultura-paisaia bereizten dira, baina ez da horrela izan behar. Kurioso da, eta askotan gure erakundeetan ere departamentu desberdinetan banatuta daude ardurak, manikeismo horren arabera. Euskal Herriko paisaia guztiak antropizatuta daude. Eta babestu behar ditugu bertan bizi garelako eta gure etorkizunaren berme direlako. Hori egin behar dugu, bai guretzat zein gure ondorengoentzat bizi kalitatea mantendu nahi badugu. Kontzeptu bezala, oso garrantzitsua da paisaia, interpretatu daitekeelako. Berez, agertoki bat da eta batera azter daiteke, modu globalean. Ez orain arte egin den moduan, geografoek, arkeologoek, arkitektoek, etnografoek, biologoek... bakoitzak bere kabuz lan egiten. Argentinarrak arkitekto batek modu honetan laburbildu zuen filosofia hori: "Orain arte sakabanatuta izan diren ondareak modu koralean aritzen diren lekua da paisaia". Ideia hori polita da.

Gasteizko Santa Maria Katedralean egindako lanagatik saria jaso duzue. Arkeologiaren eta bibliografiaren ikuspuntutik zerbait berria aterako al da, ala dagoeneko dena argituta dago?

Asko dago oraindik aurkitzeko, arlo guztietan. Orain arte egindako lana handia izan da. Katedraleko proiektua ideia bat da, eta horregatik eman digute sari hori: duela 25 urte inork asmatzen ez zituen gauzak guk asmatu genituelako. Gaur egun mundu guztiak onartzen du ondarearekin lan egiten denean, eta dirua horretan gastatzen denean, diru hori eta hor egiten den guztia jendeari zabaltzea egin behar zaiola, eta azaldu egin behar zaiola; baina duela 25 urte hori ez zen egiten. Bestetik, *Obretan eta irekita* leloa Gasteizen asmatu zen. Ideia horrek defendatzen du kultura-ondarearen arloan posible dela berrikuntza soziala egitea. Gaur egun bizitzen ari garen egoeran, immigrazioa dela edota xenofobia dela, Europako Batasuna konturatu da bereziki garrantzitsua dela berrikuntza sozialean inbertitzea eta ikertzea. Kultur ondareak lagun diezagukeelako gure identitatea mantentzen, datozenen identitatea errespetatuz.

Eta Euskal Herrian erakunde publikoek hori ulertzen al dute?

Gero eta gehiago ulertzen dutela esango nuke, baina oraindik gehiago behar da. Adibidez, [Europar tokian tokiko ekonomia bultzatzeko berrikuntzan eta ikerketan oinarritutako] RIS3 estrategiaren baitan, Galizian antolatu duten lehen erronka paisaiaren eta ondarearen ingurukoa izan da. Andaluzian ere gauza bera egin dute. Euskal Herrian oraindik ikuspuntu *teknozientifikoegia* dugu, eta ez dakit zer puntura arte baloratzen ditugun teknikasun horrekin lotuta ez dauden berrikuntzak.

Dena dela, instituzioak beharrezkoak dira. Adibidez, katedraleko proiektua ez zen posible izango Arabako erakundeen babesa jaso gabe. Askotan kanpoko jendeak horri buruz galdetzen dit, instituzioek eman diguten laguntza horri buruz. Duela 25 urte erakundeak eta Arabako gizarte guztia bat etorri ziren gure proiektua bultzatzeko, eta hori onartu eta aitortu beharra dago.

Arabak izugarritzko ondarea dago. Jendeak ba al du horren kontzientziarik?

Jendeak gero eta gehiago ulertzen du ondarea ez dela soilik harri zaharrei dagokiena. Gure ingurunea da, bizi dugun paisaia, eta zentzu horretan badago kontzientzia bat. Gainera Euskal Herrian beti izan dugu naturarekiko harreman indartsu bat. Zentzu honetan, Araba bereziki aberatsa da. Bizkaitarra izanda, hona etorri nintzenean harrিতuta geratu nintzen. Zeinen ederra den Araba! Bazter izugarri politak ditu, Gaubea, Mendialdea, Arabako Errioxa... Tira, dagoeneko nik arabartzat dut nire burua, eta esango nizuke arabarrok badugula kontzientzia gehiago gure inguruneaz, naturaz, eta, naturarekin batera, paisaiaz. Azken finean, paisaia da gizakiak lurralde batean utzi duen memoriaren aztarna. Gure arbasoek utzi digutena, hain justu. Eta Euskal Herrian badago nolabaiteko kontzientzia gure nortasunaz. Zentzu horretan, pribilegiatuak gara.

Gaiaren inguruan ikertzaile eta elkarte pila bat lanean ari dira. Nola ikusten duzu belaunaldi berria?

Gero eta prestatuagoak datoz, horrek dituen alde argi eta ilunekin. Batetik, esan bezala, oso jende prestatua da, hizkuntzak maneiatzen dituena, atzerrian ibilita dagoena... Alde ilunari dagokionez, puntu batean gehiegizko lehiakortasuna dute, eta profesionalki ere etorkizun iluna dute. Askotan jende gaztea

espezializazioetan prestatzen ari gara, baina diziplinak eta espezializazioak XIX. mendeko asmakizunak dira. Pertsona bat bere burua oraintxe esku artean dudana boligrafo honetan espezialista bihurtu daiteke, baina horrek ez dauka etorkizunik.

Baina unibertsitate-sistemak gero eta gehiago espezializazioaren alde egiten du...

Hori niretzat izugarritzko akatsa da. Orain ikasten ari garena berehala zaharkituta gertatzen ari da. Ezin dugu imajinatu lauzpabost urte barru zer gauza berri izango ditugun. *Aptitudeak* edo gaitasunak landu baino, askoz garrantzitsuagoa da *aktitudeak* lantzea, jarrerak lantzea. Gure gazteei erakutsi behar diegu jarrerak lantzen. Emankortasuna, malgutasuna, talde lana egiteko gaitasuna...

San Frantzisko komentuari buruzko inguruan oso gauza interesgarriak ateratzen ari dira. Nola dago kontua?

Geratzen diren komentuarien aztarna horiek nolabait txertatu behar dira orain egiten ari den berrurbanizazio prozesuan. Hori modurik azkarrenean eta dotorenean egiten ahalegindu behar gara. Geratzen dena gutxi izan arren, sinbolismo handikoa da, eta sinboloak garrantzitsuak dira. Pena izugarria izan zen 1931an egin zutena. Izan ere, komentua garrantzi handiko tokia izan zen, ez bakarrik Gasteizko historian, Euskal Herriko historian baizik.

Honetan ere, nobedade gehiago egongo dira, hilabete gutxi barru gure ikerketa taldeko kide Ismael Garcia-Gomezek frantziskotarrei buruzko liburu bat argitaratuko duelako.

Arkitekturaren arkeologiaren bultzatzaile handienetakoa zara. Zertan datza?

Jende askok, eta arkitekto askok ere, uste dute eraikinak denboran gelditutako ereduak direla, baina gauzak ez dira horrela, inondik inora. Gizakion antzera, eraikinak jaio, heldu, zahartu eta hiltzen dira. Eta guri gertatzen zaigun moduan, denboraren poderioz, euren biografia zimurrez eta arazoez beteritzen da. Nola azter daiteke eraikuntzetan denboraren igarotze hori? Estratigrafiaren bitartez. Gauzak pilatzen doazelako; zerbait berria egiten denean, egitura bat erori eta konpontzen denean, hor eraikinen arteko harreman estratigrafikoak sortzen dira, eta horiek aztertuta uler daiteke eraikin bakoitzaren biografia. Hori da arkitekturaren arkeologiaren bidez aztertzen duguna.

Duela hainbat urte ZAIN fundazioa bultzatu zenuen, baina desagertu da. Zergatik?



2019ko Europako Ondare Arkeologikoaren saria jaso du Santa Maria Katedrala Fundazioak. IREKIA

**"BERRIKUNTZAREN ALORREAN,
EUSKAL HERRIAN IKUSPUNTU
'TEKNOZIENTIFIKOEGIA' DAGO"**

**"DIZIPLINAK ETA ESPEZIALIZAZIOAK
XIX. MENDEKO ASMAKIZUNAK DIRA,
ETA ORAIN EZ DUTE ETORKIZUNIK"**

**"HIRIETAN EGITEN DUGUN ZORUAREN
KONTSUMO ARDURAGABEA AMAITU
BEHARRA DAGO, HALABEHARREZ"**

ZAIN fundazioa nire ametsa izan zen. Ideia polita izan zen: ikerketa gune bat sortzea, azpiegitura gutxiarekin, beti ere adi egonda gizarteak behar zituen gauzei erantzuteko; diagnosiak eginez, beharrak definituz, behar horiei aurre egiteko behar genituen ikertzaileak topatuz, proiektuak martxan jarritz... Ikertzaileen *autofingibilitatea* defenditzen nuen, bere kabuz jasangarria zen erakundea sortuz. Askotan gertatzen da funtzionarioak sortzen direla, gero funtzionarioei ezin zaie pagatu... eta halakoetan galtzen dira halako egiturak. Hori beharrean, egitura txikia asmatu nahi izan nuen, malgua eta egokitua une bakoitzean behar diren beharretara. Baina ez zen atera. Ez dugu sakonduko egitasmoa desagertzearen arrazoietan. Beharbada ideia aurrerakioagoa zela esatearekin nahikoa da. **Noizko halako bat Euskal Herrian, Santa Maria la Real fundazioaren antzeko bat, ondarearen eta gizartearen arteko zubi lana egiteko?**

Hori zen asmoa ZAIN fundazioarekin... baina, esan bezala, ez zuen aurrera egin. Baina jende oso ona dugu. Niretzat Ismael [Garcia-Gomez] behar den ikerketa eredu berri horren paradigma da. Ikertzaile fina da, bere garaian unibertsitatean sartu nahi izan ez zuena. Halakoak behar dira, datorren munduan gauzak asko aldatuko direlako. Unibertsitateak asko aldatuko dira, horietako asko desagertzen ez badira... Duela gutxira arte ezagutza unibertsitatean besterik ez zen lantzen, baina gaur egun zorionez ezagutza sor daiteke horietatik kanpo ere. Itxaropentsu izan behar dugu datozen belaunaldiak gauza berriak asmatzeko izango dituzten gaitasunez;

gauza berriak asmatu behar direlako, eta gauzak egiteko modu berriak aurkitu.

Zer iruditzen zaizu Jaurilaritzak ondareari buruz egin duen lege berria?

Gauza guztiak hobetu daitezke, noski; baina, oro har, nik esango nuke lege berriak hiru gauza positibo dituela. Lehena, paisaia kontzeptua kontuan hartzen duela eta kultur paisairen kontzeptuari indarra ematen diola. Bigarrena, ondare immaterialari ere garrantzia ematen diola. Hirugarrena, generoaren perspektiba agertzen dela, eta horri garrantzia eman behar zaio, perspektiba hori izango delako hainbat gauza berriztuko dituen.

Arkeologo gisa gai ugari jorratu dituzu... horiek berreskuratzeo asmorik al duzu?

Azken 20 urteetan ondarearen alorrean ibili naiz lanean, baina uste dut noizbait hasieretara bueltatuko naizela, jorratu nituen lehen gaietara, hain zuzen: Aldaieta, Aintzinate Berantiarra... horien inguruan gauza berriak esan daitezkeelako. Adibidez, bizpahiru hilabete barru Mikel Pozo ikertzaileak Aldaietari buruzko tesia argitaratuko du, eta oso inportantea izango da. Dakizunez, oso gai eztabaidagarria da hemen VI-VII mendeetan gertatu zena. Las Gobas-i buruzko liburua ere prestatzen ari naiz.

Trebiñuko koba artifizial horiek eremitorioak baino askoz gehiago izan zirela babestu duzu behin baino gehiagotan...

Bai. Euskal Herrian ditugun gauzen artean, berezietakoak dira koba artifizial horiek. Hala izanik ere, jende askok ez ditu ezagutzen, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan. Eta benetan dira bikainak eta inportanteak. Gainera, ondorio historikoak dituzte. Batez ere Lañoko haran horrek du garrantzia berezia, alde batean Santorkaria eta bestea Las Gobas dituen, alegia Inguru hori oso garrantzitsua izan zen VI. eta VII. mendeetan. Gasteizen bezala, indusketa arkeologikoen bitartez aukera izan dugu jakiteko eremu horretan boterearen ezaugarri inportanteak zeudela, horren adierazle diren aztarnak atera direlako: idazketa ezagutzen eta erabiltzen zuten, hainbat eliza zeuden, edo eta soberakinak sartzeko hainbat biltegi. Las Gobasen agertu da orain arte Euskal Herri osoan ezagutzen dugun harrizko lehen eraikuntza zibila, VII. mendekoa. Hildakoen artean, buruan ezpata kolpez hildakoak izan zirenak agertzen dira, eta zaurituak... ezaugarri horiek guztiek frogatzen dute botereari loturiko espazioak zirela.



Las Gobas-i buruzko liburua idazten ari da Azkarate. J.G.

2020. urtean Agustin Azkarate izeneko gazte graduatu berri batek doktoretza tesia aukeratu beharko balu, zeri buruzkoa egingo luke?

Argi daukat ez nukeela arkeologiari buruzkoa egingo. Izan ere, ez dut neure burua arkeologotzat. Hori baino, agian... ezagutzaren alorreko langilea naizela esango nuke. Orain doktoretza tesirako gaia aukeratu beharko banu, seguruenera ondareari lotutako zerbaiti buruzkoa izango litzateke, bereziki hiriei buruzkoa. Izan ere, hirietan jokatzen ari gara gure etorkizuna. Are gehiago, datorkigun krisi honekin, halabeharrez amaitu behar da gaur egun egiten dugun zoruaren kontsumo arduragabea. Ezin dugu jarraitu zoria eta lurra kontsumitzen orain egiten dugun moduan. Hirietan gauzak berreraikitzen, berrerabiltzen eta berrikusten hasi behar gara. **Horrenbeste aipatzen den despopulazioa benetan arazo bat da ala berez ekologikoa izango litzateke jendea hirietan biltzea?**

Aipatu duzun hori aukera bat da, eta horri buruz idatzita dago ere: biztanleria kontzentratu, ez soilik puntu batean, sare baten barruan, modu antolatuan. Bide hori jorratuta ala ez, argi dago espazio zabalak mantendu behar ditugula. ■■■

ZEURE

B

PLANA


**BASKE
PENSIO
NES**

BANAKAKO BGAe
Kutxabank SA
Bazkide
sustatzailea.
Kutxabank
Gestión IKESK
SAU Ondare
Kudeatzailea.

*“Ongi bizi
eta B plana beti
prest izan”*

(Etorkizunari aurrez aurre
begiratu, aurrezkiei etekina
atera eta ongi bizi beti)

kutxabank



Urte libre on



TXEMA RAMIREZ DE LA PISCINA

KAZETARIA ETA IKERTZAILEA

Duela astebete gertatu zen, urtarrilaren 3an hain zuzen ere. Kaleko saltzaile bezala aritzea egokitu zitzaidan, Independentzia eta Posta kaleek bat egiten duten triangelu enblematico horretan. Ordua: 18:30-20:30 bitartean. Hiru lagun geunden. Hori bai, ongi hornituta: karpa eramangarri xume bat, musika ekipo majo bat, mahai tolesgarri itxuroso bat, kartelak eta esku-orriak.

Eguraldi txakurra genuen. Hotz-beroa: 3,5 gradu. Zirimiri fin batek blaitzen zituen gure zirak eta gure zerak ere; tanta guztiz xeheez osatutako lanbrotxoa zen. Jendea batetik bestera, presaren presaz, azken erosketak egiten.

Kaleko saltzaileen profila oso zabala da. Gurea, berriz, zehatza zen. Gu ez ginen barazkiak edota Idiazabalgo gaztak saltzen ari, ezta AC/DCren kanta mitikoen kopia piratak ere. Ez ginen soldatapekoak. Lan boluntarioa zen gurea, musu-truk edota (agian) katarro baten truk egiten dena. Ez ginen Jehovaren lekukoak, ezta Mugarik gabeko medikuak ere. Gurea beste zerbait zen.

Kaleko saltzaileen lana gogorra da. Odisea txiki bat. Jendearengana hurbildu, zuretzat neutroa dirudien irria oinezko anonimoari eskaini, "arrastion" esan, informazio-orria luzatu eta gero... Erreakziorik ohikoena interesik eza da, erabatekoa gainera. Ez zara existitzen. Ez zaituzte begietara begiratzen. Ez zara inor, traba egiten duen alproja bat baino ez.

Atzean genuen megafonia etengabe ari zen gure produktuaren berri ematen. *94.000 euroko sariak*. Musika eta guzti lagunduta: *jende zoriontsua herri libre batean...*

Gure Esku gizarte-mugimenduaren aldeko boletoa saltzen ari ginen. *Tripontzia* zen "gure produktua". Ez dut uste inoiz guztiz zoriontsu izatera ailegatuko garenik, baina Gure Esku mugimendua bederen saiatzen ari da bizitzea tokatu zaigun mundu arraro honetan gauzak beste modu batera antolatzen.

Boletoa erosi nahi? Urtarrilaren 20ra arte duzu online erosteko aukera *tripontzia.eus* webgunean. Edo bestela, eskutik eskura, Gasteizko saltokietan. *@GureEskuDagoGas* kontuan dituzue denak.

Urte libre on. ■■■

**MEGAFONIA ETENGABE
ARI ZEN. MUSIKA ETA
GUZTI LAGUNDUTA:
JENDE ZORIONTSUA
HERRI LIBRE BATEAN...**

Existitu



AINTZANE URRUTIA
INFORMATIKARIA

XIX. mendean hasiera eman zizaion ohitura dugu Errege Kabalkada. 1866. urtean ospatu zen lehendabiziko aldiz Alcoyn, eta gaur egun, Euskal Herriko hiri, herri, txoko eta etxe askotara iristen den usadioa dugu; neure etxean ere amamarenera iristen dira oraindik errege magoak.

Ebanjelio kanoniko bakarrean aipatzen diren magoen festa ospatzearekin batera, urte berriarekin, indibidualki ezarrita ditugun aztura eta ezartzen ditugun asmo onak ere ugari izaten dira: urtea mendi tontorrean hasi edo amaitzea, ikasketa berriren batekin hastea, kirol gehiago praktikatzea, erretzeari uztea, dieta osasuntsuagoa eramatea... pertsonak adina ohitura dira, eta nik ere badut nirea: urteari nolabaiteko erreposoa eman eta balantzan jartzea. Bada, halaxe egin dut aurtengoan ere.

Berezia, ezberdina, apartekoa, bestelakoa eta dudaz josiriko urtea izan da azken hau niretzat. Guztioi gertatzen zaigun modu berean, momentu onak eta ez horren onak aurkitu ditut bidean, hala ere baina, urteko balantzea positiboa da. Urtebete da nire lehengo bizitzari agur esatea erabaki eta beste era batetara aurrera egitea erabaki nuela. Horrela, une latz, mingarri eta zailei egin behar izan diet so, baina nire berrogeigarren urteurrena izan den honetan, bizitzarako garrantzitsua dela uste dudana eta zurekin partekatu nahi dudana irakasgaia ikasi dut; beldurrak ekartzen digula ez ondo eta ez gaizki bizitzea, hots, hainbestean bizitzea.

Hainbestean bizi, automata baten antzera bizi, edo nire aitari askotan entzun izan nion moduan... *bizi etzakixat, baina existiu itten gaittuk motel*. Makina bat aldiz entzun nuen aita erantzun hori ematen, baina mezua ez dut orain arte ulertu. Beldurra da askatasuna urritzen diguna, beldurra da konformista bihurtzen gaituena, beldurra da mundua ikuspegi bakarretik begiratzera garamatzana, eta horrek guztiak asebetetik sentiarazten gaitu, isilik mantentzen gaitu, geldirik mantentzen gaitu. Itsasontziak ere portuan daude seguruen, baina ez ziren horretarako eraikiak izan eta horiek bezalaxe, zu ere irakurle, bizitzeko etorri zara mundu honetara, ez existitzeko bakarrik. Horrenbestez, sinistu ezazu beti zuzen, izan konfiantza zure buruan eta zure ametsak zure beldurrak baino handiagoak izan daitezen egin ezazu; alegia, bizi zaitetz eta ez existitu. ■■■

**BELDURRAK EKARTZEN
DIGU EZ ONDO ETA EZ
GAIZKI BIZITZEA,
HOTS, HAINBESTEAN
BIZITZEA**

SAREAN

@ESTITXUUGARTE

#InbestiduraSaioa

Pedro Sanchezek Diputatuen Kongresuaren baiezkoa jaso du, azkenik, datozen lau urteetan Espainiako estatuburu izateko. Modu horretan, frankismoaz geroztik osatu den lehen gobernu koalizioaren gidaria izango da. Bi botoren aldearekin gailendu da Sanchez, eta PSOEk eta UPk osatuko dute Espainiako Gobernua. Euskal Herriko alderdien artean, denetarik jaso du presidentea: EAJren diputatuen aldeko botoa, EH Bilduren abstentzioa lortu du, eta Navarra Sumaren bi diputatuen kontrako botoa. ■



**BEÑAT
SARASOLA**
@bsarasola

Bilduk Euskadiko Ezkerra aipatu du. Datu bat beste askoren artean. Hortik aurrerako analisiak, zientzia politikoaren aditu ugari, historialariei, tertuliano askotarikoei eta soziologo burutsuei uzten dizkiet nahi izatera.



MATTI NAVAS
@mattinavas

Ez dakit, zalantza bat, inbestidura historia honetako protagonistak gizonezkoak ez balira, politikaren oinarria heteropatriarkala ez balitz... espektakulu hau hain nazkagarria izango litzateke? Euskal Errepublika Feminista irtenbide bakarra da.



MARTIN KITTO
@martin_kitto

Orain ondo legoke #bellachiao abestea...
#inbestidurasaióa #inbestidura



**ANDER PEREZ
ZALA**
@Anderpz

Sanchez eta Iglesias eskubideez eta gobernu programaz aritu dira; eskuineko alderdiak, Espainiako koroaz, Konstituzioaz eta lurralde auziaz. Ke zuria eman diote konfrontazioari. Agintaldirik zakarra dator.



OIHUKATU.
@GoizaneT

Inbestidura nabil ikusten eta ez dakit ondo barre egin edota negar egin. Zelako nagia dena.

M Mendinga
Optika

150 urte
zure ondoan

www.mendingaoptika.eus

IRUDITAN



Makinak eta umeak, batera

Ikastetxe berria estreinatu dute asteon Gasteizko Salburua auzoan; urtarrilaren 8an, asteazkena, sartu ziren lehenengoz Errekabarri ikastetxeko 2 eta 12 urte bitarteko 700 ikasle inguru eraikin berrira. Obrek, baina, kanpoaldean jarraitzen dute, oraindik ere egokitu gabe dago eta aparkalekua eta ikastetxearen izena jarri barik. Sei urtetik gora pasa dira Jaurlaritzak Salburuan ikastetxe berria eraiki zuela iragarri zuenetik; hasiera batean, 2016ko irailerako funtzionamenduan egon behar bazen ere, asko izan dira proiektuak izan dituen atzerapenak. **Argazkia: Mirian Biteri. ■■■**



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**



Tradizioz, barrutik hustutako enborrak baliatu izan dira erlauntzetarako. PHOT.OK

Quejoko erlategia babestuko dute

Desagertzeko arriskuan dago zutikako enbor-erlauntzen Arabako bilduma bakarrenetakoa, eta horregatik egitura babesteko neurriak hartuko dituzte. 60 piezaz osatuta, antzoki baten itxura du erlategiak.

ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Quejoko erlategi ikusgarria babestuko du Gaubeako Udalak, eta horretarako ikerketa bat martxan jarriko du. EH Bilduk Gaubeako azken udalbatzan aurkeztu duen mozioaren arabera, arriskuan egon daiteke Arabako antzinako erlategien adibiderik bakarrenetakoa: Quejoko erletxe ikusgarria. Hartara, talde abertzaleak eskatu bezala, udalbatzak aho batez onar-

tu du udalerriko ondare historikoa eta etnografikoa berreskuratzeko ikerketa-plan bat martxan jartzea eta gainerako administrazioak plan horretan sartzeko lanean hastea.

Hirurogei pieza inguru daude, eta antzoki baten itxura du erlategiak. Enborren aurrealdeek erleak sartu eta irteteko zuloak daukate, eta erlauntz bakoitzak, goiko estalkiaz gainera, bisera

babesle bat ere badu, teila arabiarrez egindakoa.

Guztira, hamalau erlategi katalogatu zituzten, 2008. urtean, Victorino Palaciosok eta Jose Rodriguezek Añanako Kuadrillako ondare arkitektonikoari buruz egindako argitarapenean. Horietako gehienak Gaubean eta Kuartangon aurkitu zituzten, baina gehienak desagindazeuden, abandonatuak edo beste zereginetarako erabiliak izan dira.

Enbor hutsak

Tradizioz, barrutik hustutako enbor horiek baliatu izan dira erlauntzetarako, zurezko kutxen edo beira-zuntzezko etxetxoan aurretik. Enbor huts horiek zutik nahiz etzanda ipini ohi ziren. Gaur egun, zutikako enbor-erlauntzen adibide onena eta ia bakarra da Quejoko egitura. Etorkizunean, bada, babestuta egongo da.



2020ko lehen lan heriotza salatu dute SEAREN egoitzan. HALA BEDI

Urteko lehen lan heriotza salatu dute

Sindikatuak elkarretaratzea egin dute Arabako patronalaren egoitzaren aurrean. Lehen ikerketan "segurtasun gabeziak" atzeman dituzte.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Urteko lehen lan heriotza salatzeko kontzentrazioa egin dute Arabako enpresarien egoitzaren aurrean ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE eta Hiru sindikatuek. Lan

istripuaren harira, aldamiok "segurtasun gabeziak" zituela egiaztatu du Osalane lehenengo ikerketetan. Bestalde, hildako behargina artatzeko anbulantzia medikalizatuen falta salatu du Elka-

rrekin Podemos taldeak, Gasteizko Udalean.

Behargina urtarrilaren 2an hil zen, aldamiotik behera erorita, Olarizu auzoan. Hiru metroko altueratik amildu zen 54 urteko langilea, eta, anbulantzia iritsi zenerako, osasun-zerbitzuek ezin izan zuten ezer egin suspertzeko.

Arnaiz Asc 21 eraikuntza-enpresan lanean ari zen langilea eta, sindikatuen arabera, hilabete gutxi zeramatzan lanean. Halaber, istripua hitzarmenaren arabera lan eguna ez den egun batean jazo dela salatu dute.

Adierazpen instituzionala

Aste honetan egindako mobilizazioan "patronalak ardura zuzena" duela nabarmendu dute sindikatuek, eta erantzukizunak argitze-ko beharra defendatu dute.

Bere aldetik, atsekabea agertu du Gasteizko Udalak udal talde guztiek babestutako adierazpen instituzionalean. Lan arriskuen prebentziarako arauak betetzea, laneko segurtasunaren eta osasunaren aurkako delituak jazartzea eta ikuskapenak areagotzea exijitu du Udalak. Gainera, gertatutakoa argitzeko eskatu du.

Ekaitz Samaniego aske gelditu da

Espetxe zigorra osorik beteta, ka-lean da Ekaitz Samaniego Gasteizko preso. Espainiako Auzitegi Gorenak zortzi urteko kartzela zigorra ezarri zion Samaniegori 2012. urtean. Igandean aterazena gasteiztarra Zuerako espetxetik (Espainia), eta senide eta lagunek harrera egin zioten kartzela atarian, eta ondoren gertukoek Gasteizko Alde Zaharrean.



Harrera beroa jaso du Ekaitz Samaniegok Gasteizen. ALEA



ESKUALDEEN ARGAZKI SOZIOEKONOMIKOA: TREBIÑU

Enplegu gabezi handiena duen Euskal Herriko eskualdea da Trebiñu. PHOT.OK

Gabeziak nagusi, kohesioa behera

Banaketa administratibo eskizofrenikoak eragin latza du Trebiñuko etorkizun sozioekonomikoan; biztanle-galera handiena jazo duen Euskal Herriko eskualdea da, eta enplegu gabezia handiena du.

ESTITXU UGARTE LZ.DE ARKAUTE

Despopulazioa da Trebiñuko kohesio sozialerako mehatxu handiena. Hala jaso du Gaindegia ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak argitaratu berri duen Euskal Herriko eskualdeen atlas sozioekonomikoan. XX. mende hasieran Trebiñuk 4.600 biztanle inguru zituen, eta egun 1.847

pertsona bakarrik daude erroldan. Izan ere, XX. mendean zehar, herritarren galera handiena pairatu duen Euskal Herriko eskualdea da; eta 2008 eta 2018 urteen artean ere biztanleriaren bilakaera negatiboa jazo da bertan (-%2,2). Azterketan jaso dutenez, etorkizunean, Trebiñuk belaunaldi ordezkapen zaila izango du egun-

go banaketa administratiboa mantenduz gero, eta hiriburutik biztanle berriak erakartzeko gai ez bada.

Izan ere, Gaztela eta Leongo administrazioek ematen ez dituzten zerbitzuak eskuratzeko Arabako hiriburuan erroldatzen dira biztanleak, eta despopulazioaren arazoa areagotzen joan da. Hartara, Euskal Herrian gazteen presentzia ahulena duen eskualdea da Trebiñu (%8); eta emakumezkoen gabezia handiena duen Euskal Herriko eskualdea, baita ere: biztanleen %43,9 bakarrik dira emakumezkoak. Gainera, Espainiako Estatutik kanpo jaio-tako biztanleria gutxi jaso du (%5,8).

Eragin latza du banaketa administratibo eskizofrenikoak, eta muturreko adierazleetan nabarmentzen da: jarduera, enplegua eta

oinarrizko zerbitzuen gabezia handiena nozitzen duen eskualdea da. Gaindegiak jaso duenez, "Trebiñu hustea egoiliarrentzat zailtasun gehigarria izateaz gainera, Arabako lurralde kohesioarentzat problema ere bada".

Azterketa eskualdez eskualde

Gaindegia ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak argitaratu berri duen argitalpenak eskualde bakoitzaren ezaugarri soziodemografikoak zein ekonomikoak zertan diren ezagutzera ematen du, eta atlas interaktibo batean bildu ditu datu guztiak. Eskualdearen ezaugarri sozioekonomikoak azaltzeaz gain, Euskal Herriko gainerako eskualdeekin konparaketa egiteko aukera ematen du.

Arabako kasuan, zazpi eskualde bereizi ditu Gaindegiaren lanak: Trebiñu, Gorbeia inguruak, Araba Kantauriarra, Arabako Mendialdea, Arabako Errioxa, Arabako Ibarrak eta Arabako Lautada. Trebiñutik hasita, hurrengo sei asteetan, gainerako eskualde guztien datuak eskainiko ditu ALEAk, Euskal Herriko behategiaren lana baliatuz. Lau sailetan banatuta ageri dira datuak: lurraldea, ekonomia, kohesio soziala, eta demografia.

Enplegu gabezia handiena

Trebiñuri dagokionez, eskualdearen gainbeheraren erakusgarri diren hainbat datu nabarmendu daitezke. Esate baterako, jardueraren ekonomikoa eta enpleguari dagokionez, proportzioan, Euskal Herrian enplegu gabezia handiena duen eskualdea da. Halaber, lurraldean dagoen enplegu bolumena oso txikia da, bertan bizi den biztanleria aktiboarekin proportzioan. Hala, Euskal Herrian %84,6koa baldin bada proportzioa, Trebiñun soilik %26,7koa da.

	Euskal Herria	Trebiñu
Lurralde egitura eta ingurua		
Biztanleria dentsitatea (bizt./km ²)	150,6	6,6
Oinarrizko zerbitzu publikoen gertutasuna (km.)	8,1	10,6
Elikadura asetzeko lurra (ha/100 bizt.)	25	667,3

	Euskal Herria	Trebiñu
Ekonomia eta enplegua		
Jarduera tasa (%)	76,8	90,8
Langabezia tasa (%)	14,5	10,9
Enplegu nahikotasuna (%)	84,6	26,7

	Euskal Herria	Trebiñu
Kohesio soziala		
Estatutik kanpo jaiotako biztanleria (%)	10,2	5,8
Bigarren mailako erabilera duten etxebizitzak (%)	7,1	57,9
Euskal hiztunen tasa (%)	34,6	26,5

	Euskal Herria	Trebiñu
Metabolismo demografikoa		
Biztanleria osoa	3.152.218	1.847
Biztanleriaren bilakaera 2008-2018 (%)	+3,1	-2,2
Biztanleriaren feminizazioa (%)	51,3	43,9

ITURRI: GAINDEGIA

Gaindegiko azterketaren arabera, ehun ekonomiko urria eta ahula medio, enpleguak eskasak dira; "horregatik, bertan lan egiten duen askoren hautua langile autonomo izatea da". Gaineratu dutenez, lurraldearen mendebaldea salbu, ekonomikoki "ez leku" bilakatu da. "Ekonomia jarduerak diren tokietan, ordea, industriak eta zerbitzuek presentzia txikia dute eta prestakuntza gabeko enplegua da nagusi". Horrenbestez, zerbitzuen bila bezala, lan egiteko ere Gasteizera jotzen dute Trebiñuko herritarrek.

Etxebizitzaren alorrean, Arabako Errioxan, Mendialdean edo Nafarroa Garaiko beste eskualde batzuetan bezala, etxebizitza parkearen %60ak ez du erabilera iraunkorrik.

Atlas osoa webgunean eskura

Edozein erabiltzailek eskualde bakoitzari buruzko oinarrizko informazioa eskuratu dezake modu bizkorrean Gaindegiak argitaratu duen atlas interaktiboan. Hurrengo loturretan ikus daiteke argitalpena: www.gaindegia.eus/eskualdeak eta https://atlasak.datuak.net/eskualdeak_EH/. Halaber, deskargarako loturak daude horretan.

ESANAK



JOSEBA AZKARRAGA
SARE PLATAFORMAKO BOZERAMAILEA
Iturria: Berria

"Presoen gatazka konpontzeko, hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia da"



ARANTZA MUGURUZA
IKERLARIA
Iturria: Aiaraldea

"Zientzian diru asko sartzen da, baina ikerlariok egoera prekarioan gaude"



SONIA DIAZ DE CORCUERA
JAURLARITZAKO TRAFIKO ZUZENDARIA
Iturria: Radio Vitoria

"Arabako Diputazioak hala eskatuta, Lezako errepidean radar bat jartzeko lanean gabilta"

ZENBAKITAN

Urteak

Borja Lazaro desagertu zela sei urte igaro badira ere, gertukoek ez dute gasteiztarra ahazten, eta hori dela eta, kontzertua antolatu dute larunbaterako, urtarrilak 11, Manuel Iradier kalean dagoen The Tap tabernan, 19:30etik. Alison Keable, Beitia, Víctor Gutierrez y Similar Interests musika taldeen emanaldiekin gaztea gogoratuko dute eta ikerketak jarrai dezan ere eskatuko dute. Lazaro 2014ko urtarrilaren 7tik 8rako gauean desagertu zen, Guajira hiri kolonbiarreko Cabo de la Vela inguruan. Denbora honetan guztian familiak ez du hura aurkitzeko itxaropenik galdu.

6

57

Plazak

Arako Diputazioak 57 plaza betetzeko Enplegu Publikoaren Eskaintza (EPE) deituko du aurten, A taldeko 40 lanpostu betetzeko (14 ekonomia eta enpresa arlokoak, 11 zuzenbidekoak, Hizkuntza Normalizazioko 3 teknikarirenak, Lankidetzako 2 teknikarirenak eta Administrazio Orokorreko erdi mailako 10 teknikarirenak) eta C taldeko 17 postu (12 basozain eta 5 gidarirenak). Oinarri orokorrak urteko lehen seihilekoan onartuko direla aurreikusten da.

11.000

Euroak

Zumarraundi bidea konpontzeko partida bat aurreikusi du Zaldondo Udalak onartu dituen aurrekontuetan; zehazki, 11.000 euro gorde dituzte, handitu daitezkeenak. 2020a Zumarraundiko bidea berriz ere zabaltzeko urtea izatea espero dute, izan ere, Gipuzkoa eta Arabako diputazioek eta Asparreneko Udalak ere partidak onartu dituztelako, eta orain bi herrialdetako partzuergoek beren aurrekontuetan erabakitzen dutenaren zain daude.

Elecnorreko langileek Diputazioaren inplikazioa eskatu dute

Abenduaren 9tik greba mugagabea dauden Elecnorreko langileek Arabako Aldundiaren inplikazioa eskatu dute gatazka konpontze aldera. Enpresak erakunde honi zerbitzu ematen dio mantenuan eta komunikazioarekin lotutako hainbat gaitan, eta horregatik, bertako langileek beharrezkotzat jotzen dute Diputazioaren esku hartzea.



Urtarrilaren 3an, Diputazioarekin elkarretaratzea egin zuten langileek. LAB

Hilaren 16an hasiko da txotx garaia Arabako sagardotegietan

Ostegunean hasiera emango diote Arabako hiru sagardotegiek txotx garaia. Zuhatzu Kuartangon egin zuten kupelak irekitzeko ekitaldia Aramaioko, Kuartangoko eta Trebiñuko sagardogileek, eta maiztzerara arte zabalduko da horrenbestez sagardoa dastatzeko aukerarik onena. Uzta oso ona izan dela adierazi dute sagardogileek, eta sagardoa "bikaina" izango dela aurreratu dute.

Iturrietako Mendietan parke eolikorik ez dutela nahi berretsi dute

Iturrietako Mendiak Aske izeneko plataforma berreskuratu dute Lautadako eta Mendialdeko hainbat herritako lagunek, inguru horretan parke eoliko bat eraikiko duten beldur. Natura 2000 Sarearen barruan dagoen eremua dela argudiatu dute, eta horrelako azpiegitura batek bereziki bertako hegazti nekrofagoei eragingo liekeela salatu dute.



ATE IREKIAK
UNIBERTSITATE GRADUAK
2020/2021 ikasturtea

LEARNING FROM REALITY

INGENIARITZA

BILBO URTARRILAK 15
ASTEAZKENA 18:00

ARRASATE URTARRILAK 22
ASTEAZKENA 17:30

ORONA IDEO OTSAILAK 1
LARUNBATA 10:30

GOIERRI OTSAILAK 8
LARUNBATA 10:30

EKINTZAILTZA

BILBO OTSAILAK 1
LARUNBATA 11:00

OÑATI OTSAILAK 15
LARUNBATA 11:00

BIDASOA OTSAILAK 29
LARUNBATA 11:00

ENPRESA KUDEAKETA

BILBO OTSAILAK 8
LARUNBATA 11:00

OÑATI OTSAILAK 15
LARUNBATA 11:00

BIDASOA OTSAILAK 29
LARUNBATA 11:00

HEZKUNTZA

ESKORITZA OTSAILAK 8
LARUNBATA 11:00

BILBO OTSAILAK 8
LARUNBATA 11:00

KOMUNIKAZIOA

ARETXABAETA OTSAILAK 8
LARUNBATA 11:00

BILBO OTSAILAK 8
LARUNBATA 11:00

HUMANITATEAK

BILBO OTSAILAK 8
LARUNBATA 11:00

GASTRONOMIA
— Basque Culinary Center

DONOSTIA OTSAILAK 13
OSTEGUNA 18:30

Etorriko zarela jakinarazil

www.mondragon.edu/prest

Bertso Egunerako prestatzen

Urtarrilaren 18an ospatuko dute 51. bertso jaialdia, Aramaion; ibilbide gidatu bat eta bost bertso-bazkari egingo dituzte, beste hainbat ekitaldiren artean, hamaika bertsolariren eskutik.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Aramaion ospatuko dute aurten 51. Bertso Eguna, urtarrilaren 18an. Arabako bertsozale Elkartek, Aramaioko Udalak eta Aramaioko bertso-eskolak elkarlanean antolatuta, bertso-festak hartuko du Gorbeialdeko txoko hau egun guztian zehar.

Bertso bazkaria izango da egitarauko plater nagusia. Bost otordu izango ditu aukeran zaleak: Nerea Elustondo eta Unai Iturriaga izango dira Ehiztari txokoan; Eneko Lazkoz eta Miren Artetxe Izarra elkartean; Onintza Enbeita eta Sebastian Lizaso izango dira Urribarriko elkartean; eskolako jangelan parte hartuko dute Jone Uriak

eta Beñat Gaztelumendik; eta Ane Labaka eta Iñaki Viñaspre Zabolako elkartean. Txartelak eskuragai daude urtarrilaren 12ra arte www.bertsosarrerak.eus atarian, 20 euroren truke.

Urribarriko eta Zabolako elkarreetara joateko autobusa egokituko du elkarreak herrigunetik, goizeko saioa amaitzen den lekutik – lehenerako 14:30ean, eta bigarreneko 14:45ea-- . Izan ere, bertso bazkariaren aurretik, 12:30ean, bertso ibilbide

URTARRILAREN 12RA ARTE IZANGO DA AUKERA BERTSO-BAZKARIETAN IZENA EMATEKO

gidatua egingo dute Aramaioko kaleetan zehar. Gidari lanetan izango dira Andoni Egaña, Ane Zuazubiskar, Irati Majuelo, Jokin Uranga, Martin Abarrategi, Oihana Bartra, Oihana Iguaran, Sustrai Colina eta Xabi Igoa.

Bazkariaren ondotik, arratsaldean festa luzatu nahi duenak izango du aukera, Urola erdiko trikitilariak batuko baitira 19:00etan. Are gehiago: lo egiten geratu nahi duenari tokia ere eskainiko zaio, eskaera egonez gero.

Bertsoa.eus webgunean ikusentzun daitezke bost hamarkadetako Bertso Eguretako une berezietako batzuk. 1968ko urtarrilaren 21an egin zen lehenengo aldiz, Donostian. ■■■



Iaz, Barañainen ospatu zuten Bertso Eguna. BERTSOA.EUS

Mundu osoa mugimenduan

Otsailetik aurrera abiatuko da Danzalava jaialdiaren laugarren edizioa; hamabi ekintzaz osatutako urte osoko egitaraua izango du, eta estatuan zein nazioarte mailan ezagunak diren zortzi artista hurbilduko dira.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Proposamenez josita dator aurtengo Danzalava jaialdia. Hamabi ekintzaz osatutako egitaraua eskainiko dute laugarren edizio honetan, otsailetik aurrera. Lantegiak, publikoa sentsibilizatzeko erakustaldiak, topaketak, laguntza koreografikoak eta sormen-laborategiak izango dira Artium museoan eta Erriberagoitiko Lasiera herrian.

Jaialdiak estatuan eta nazioarte mailan garrantzitsuenetakoak diren mugimenduarekin lotutako 200 profesional baino gehiago ekarri ditu, lehenengo edizioaz geroztik. Artista euskaldunetz gain, tartean, Madril,artzelona, Paris, Txile eta Argentinatik etorritakoak ere izango dira, tekniken eta mugimenduen perfekzioa bilatzeko asmoz.

Monica Valenciano, Julyen Hamilton, Idoia Zabaleta, Oscar Gomez Mata, Marta Izquierdo, Txubio Fernandez de Jauregi, Mark Tompkins eta Florence Augendre dira aurtengo gonbidatuak, eta Araba



Mark Tompkins izango da, besteak beste, aurtengo gonbidatuetakoa bat. DANZALAVA

mugimenduaren lengoaia berrirentzako eta dantza garaikiderako ikerketa, formakuntza eta sentsibilizazioaren erreferente bihurtu nahi dute.

Era berean, emakume sortzailea ikusgarriagoa izateko apustua egiten jarraitzen du Danzalavak. Zentzu horretan, formakuntza proiektuak lan ildo pertsonal bat lortzeko erraztasunak jartzen ditu jaialdiak, eta sorkuntza ardatz garrantzitsua bihurtzeko lanean

ari diren emakumez inguratutako proiektu eta espazioak izango dira.

Horrez gain, indarberrituta dator Danzalava, Dantzagunea dantza zentroarekin elkarlanean aritzeko hitzarmena sortu ondoren. Akordio honek lurralde ezberdinen arteko artisten igarotzea eta sarea osatzen lagunduko du, eta lotura indartsua izango da Hego Euskal Herriko zentro inportanteenarekin. ■■■



ERROTA
HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Julián de Apraiz, 1
01012 VITORIA-GASTEIZ

Pote txikian, edertasuna

Izaera bereziko lurraldea da Labraza Arabako Errioxan. Erdi Aroko hiribildu harresidun txikiaren isolamenduak mediterraneotasuna salbatzen lagundu dio, eta horren lekuko dira paisaiak.

ARGAZKIAK: PHOT.OK

TESTUA: ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Labrazako Dueñas izenekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko alepo pinuaren (*Pinus halepensis*) populazio natural bakarra, eta Iberiar Penintsulan ipar-mendebaldean dagoena. Arabako Errioxako eta Bizkaiko gainerako alepo pinu guztiak landatutakoak dira.

Adin guztietako aleak aurki daitezke baso horretan, baina bere habitata ere hondatu egin da, mahastiekin aldatu egin baita eta egurra egiteko ere erabili baitute bizilagunek. Horren ondorioz, eta ale kopuruak behera egiten ari zirela ikusirik, baso erreserba gisa katalogatu zuen Arabako Foru Aldundiak, 2011n, basoaren biziraupena bermatzeko. Gainera, alepoko pinua espeziea Arriskuan dauden Espezieen EAEko Zerrendan jasota dago, "kaltebera" gisa.

Berrogeita hamar hektareako eremua hartzen du pinudiak, Paridera del Monte izeneko mendiaren magaletan. Bertara iristeko ibilbidea ez dago seinaleztatua, baina zailtasunik ez du. Labraza herritik bertatik basoa ikusten da, eta bertara igotzen den asfaltatutako bidea ere agerian dugu. Pista asfaltatu horretan agertzen zaigun lehen bidegurutzean ezkerraldera joko dugu, eta hogeitabat metrora, bihurgune erdian, oso

handiak ez diren harlauzak ditugu. Leku horretan autoa utzi eta lurrezko pista bat hartuko dugu, eskuinerantz eta beherantz, bidegurutze batera heldu arte; eskuinera joango gara Valdevaron errekarara heldu arte. Menditik gora abiatuko gara orduan, harrizko bide batetik, Paridera del Monte mendira. Inguruan ditugu alepo pinuak, izpilikuak, erromeroak eta ezkaikak.

Mendiaren gailurretik ipar-ekialdean, Llanasko mendilerroan, Nafarroako Azuelo herriko parke eolikoa ikus dezakegu; mendebaldean,

NEURRI IKUSGARRIAK DITU LLANAS MENDIAN DAGOEN HARRIZKO ELURZULOAK

berriz, Labrazako Erdi Aroko hirigunea eta hego-mendebaldean Oion, Moreda Araba eta Viana herriak, eta Logroño (Espainia). Ikuspegi ederra.


Mendiko elurzuloa

Pinudiari bisita egin eta gero, ibilaldia luzatu daiteke edo Labrazara jaitsi. Txangoa luzatu nahi izanez gero, aipatutako Llanasko mendilerroan dagoen elurzulora abiatu gaitzeko. Neurri ikusgarriak ditu harrizko

egiturak: 7,40 metroko diametroa eta bederatzita metroko hormak; eta biltegi itxurakoa da. Eginiko ikerketaren arabera, 1654. eta 1663. urteen artean eraiki zuten mendiaren, Labrazan bertan zegoen bigarren elurzulo bat hornitzeko. 2013an zaharberritu egin zuten eta harrizko hormak berreskuratu zituzten.

Herri harresidun txikiena

Mendiko bitxikiari aparta, Labrazan bertan badago zer ikusi. Izan ere EAEko herri gotorturik txikiena da, eta munduan ondoen kontserbatzen direnetako bat. Hala ziurtatzen du 2008an jaso zuen Harresidun Hirien Nazioarteko Zirkuituaren munduko sariak. Tamaina txikikoa izanik ere, ondare aberatsa gordetzen du: lau dorre, alkazar bat, almenak, pasadizoak eta tunel sekretuak, gezileihoak, ingurabideak... Gune harresituan hegoaldeko atetik sartuta, San Miguelen eliza dago; eliza horren harresi gotikoak defentsarako barrutiaren zati dira. Hesia ere bereganatu egin dituzte etxebizitzak egiteko eta barneko atzeko horma bihurtu dute. Interesgarria da, baita ere, XIV. mendeko Mairuaren Iturrira hurbiltzea. Barrualdean aurpegi gotiko batekin apaindutako tutua du, eta hortik datorkio izena. ■■■



Labrazatik ibilbidea

Kuadrilla: Arabako Errioxa.

Udalerrria: Oion.


Luzera: 7 kilometro Labrazatik Dueñasko pinudira joan-etorria.

Bitxikeriak: Arabako Errioxako mahats hektarea gutxien duen herria da Labraza, %14 soilik; zereala eta fruta-arbolak dira nagusi.

Labirintoa

BARRUTIA IKASTOLA - LH 4

Mugikorra bateriarik gabe dago. Pizteko kargadorea topatu behar da. Lagunduko diguzu mugikorra kargatzen?



Koloreztatu

BARRUTIA IKASTOLA - LH 4

Irudia koloreztatu, baina horretarako ematen diren argibideei jarraitu behar zaie: 1, urdina; 2, zuria; 3, horia; eta 5, marroia.



Irabazleak:

Erregeen bi erroska: Maika Casteig eta Miren Fernandez de Betoño.

Oihanederreko Kultur Otarra: Noelia Cabezas Olcoz.



Museo del Organon menua Bi lagunentzat

Gasteizko Museo del Organo jatetxe begetarianoan, astelehenetik ostiralera bitartean, bi pertsonarentzako eguneko menua zozkatuko du ALEAk. Eman izena urtarrilaren 15a baino lehen, eta hilaren 17ko ALEAN argitaratuko dugu irabazlearen izena.



Gorbeia zinemarako Sarrera bikoitza

Gorbeia zinemetan, edozein pelikula ikusteko sarrera bikoitz bat zozkatzen du ALEAk.

Parte hartu urtarrilaren 15a baino lehen, eta urtarrilaren 17ko ALEAN publikatuko dugu irabazlearen izena.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

alea.eus/harpidetzak/



AGENDA

Urtarrilaren 10etik 16ra

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak diruz lagundua.

Euskararen agenda

HAURRAK

GASTEIZ Naturalistaren lantegia

Salburuan bizi diren animaliak ezagutu edota mendian orientatzen ikasteko saioa. 5 eta 10 urte bitartean.

Larunbata 11, 17:30ean, Ataria gunean.

LAUDIO Eskulan saioa

Kikarak egiteko eskulan saioa. Ondoren askaria izango da. 5 urtetik gorako haurrentzat. Sorgin Zapatuak zikloaren barruan.

Larunbata 11, 17:30ean, Lamuza parkeko frontoi etxean.

GASTEIZ Natur ibilbidea

Salburua eta bertako hegaztiak ezagutzeko bisitaldi gidatua. Familia guztiarentzako saioa.

Igandea 12, 11:30ean, Ataria gunetik abiatuta.

GASTEIZ Eskulan lantegia

Elur panpina egingo dute kotoiarekin eta material desberdinekin. 8 urte bitartean.

Asteazkena 15, 18:30ean, Landatxo gizarte etxean.

DANTZA

LEGUTIO 'Gorria'

Bertso eta dantza ikuskizuna. Miren Amuriza eta Askoa Etxebarrieta *La Pulgarekin*. Bertsolaria eta dantzariaren arteko elkarrizketa prozesu baten emaitza da saioa.
Ostirala 10, 20:00etan, kultur etxean.



MICE

GASTEIZ Mice

'Zilar printzak' lana aurkeztuko du Miren Narbaizak.
Asteartea 14, 20:30ean, Parral tabernan.

ARAMAIO Dantza-plaza ikastaroa

Plazako dantzak ikasteko saioa, helduentzat. Fandangoa, arin-arina eta bestelako dantzak.

Igandea 12, 17:30ean, kiroldegian.

HITZALDIA

GASTEIZ 'Sorabiera'

Hitz Adina Mintzo hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloaren barruan. Ivan Igartuarekin.

Asteazkena 15, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

ERAKUSKETAK

GASTEIZ 'Elezahar margotuak'

Esti Agirre Lopez de Munain artista gasteiztarraren erakusketa. Euskal mitologia ardatz duen bilduma.
Urtarrilaren 18ra arte, Judimendiko gizarte etxean.

GASTEIZ Gazte Klik Klak

Argazki eta bideo digitalen erakusketa. Gazte Klik Klak 2019 edizioan aukeratutakoen bilduma.
Hilaren 11ra arte, Zas kultur espazioan.

ARTZINIEGA Gabonetako jaiotzen erakusketa

Bost kontinenteetatik jasotako Gabonetako jaiotzen erakusketa.
Otsailaren 2ra arte izango da, Santxotena museoa.

BESTELAKOAK

GASTEIZ Izan Media tailerrak

Komunikazioaren inguruko saioak. Prentsa, irratigintza, bideogintza eta kartelgintza tailerrak. Hala Bediren eskutik. Hilaren 17an eta 18an izango dira saioak.
Hilaren 11ra arte eman daiteke izena.



VITAL FUNDAZIOA

GASTEIZ Jostailu erakusketa

1870 eta 1970 urteen arteko piezen erakusketa.
Martxoaren 29ra arte, Vital Fundazioa erakusketa aretoan.

Beste batzuk

MUSIKA

GASTEIZ Iseo & Dodosound

The Mousehuntersekin batera.
Ostirala 10, 22:30ean, J. Jazzen.

GASTEIZ Edurne Zabalo eta Gorka Hermosa

Larunbat musikalak zikloaren barruan.
Larunbata 11, 12:30ean, Arte Eder Museoa.

LAUDIO Aurora Boreal

Musika barrokoa.
Larunbata 11, 20:15ean, Lamuzako San Pedro elizan.

GASTEIZ The Morlocks

The Smoggersekin batera.
Larunbata 11, 22:30ean, Hell Dorado aretoan.

GASTEIZ Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Frank Peter Zimmermann biolinjolea eta Robert Treviño orkestra zuzendariarekin batera.
Astearte 14, 20:00etan, Principal antzokian.

BESTELAKOAK

GASTEIZ 'Feminismo y envejecimiento'

Monica Ramos Toro antropologoaren eskutik. Gaztelaniaz. Maria de Maeztu forum feministak antolatuta.
Astearte 14, 19:00etan, Sorginenean.

AMURRIO Ballet gala

San Filipo Sindromearen Euskal Elkartearen alde antolatuta.
Larunbata 11, 18:00etan eta 20:30ean, Amurrio antzokian.

ARTZINIEGA Bisitaldiak

Udalerria ezagutzeko antzetzutako bisitaldiak. Aurretik izena eman behar da Udalean.
Igandea 12, 12:00etan, frontoitik.

Euskararen Agendako hitzordu guztiak ikusteko:

alea.eus/agenda



Urtarrila 2020

OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA

GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA

07 as. | 19:00 Ikus-entzuzkoa



Izen-ematea: ingelese

Gimme Danger

Aukeraketa eta aurkezpena: Patricia Lopez Amate

Filmazpit zinema jatorriko bertsoaren euskarazko azpitu-luerekin

Filmazpitekin elkarlanean

15 az. | 19:00 Hitzaldia



Izen-ematea: euzkara

Sorabiera

Ivan Igartua

Hitz Adina Mintzo, hizkuntza gutxiak ezagutzeko zikloa

UEU-ekin elkarlanean

18 Ir. | 10:00 > 19:00 Ikastaroa



Izen-ematea: hainbat euzkarrak eta tartararen 17ra arte

Izan media, Herri komunikazio tailerrak

Bideogintza, kartelgintza eta irratigintza

Hala Bedi-ekin elkarlanean

19 ig. | 19:00 Dantza-saioa



Izen-ematea: ahazteko eta tartararen 17tik 17ra arte

Ilunabarrean dantzan

Aniez Ceccon (Miarritze)

Ilunabarrean dantzan baitolk-a eta euskal dantzen plaza

22 az. | 18:00 Ikus-entzuzkoa



Bihar dok 13

Ander Iriarte eta Aitor Bereziartua

Begi Belarri, ikus-entzuzkoen zikloa

GEU Elkarte eta IKA-ekin elkarlanean

26 ig. | 19:00 Ikuskizuna



Izen-ematea: ahazteko eta tartararen 17ra arte

Bakardadeak garaitu zituenak

Jose A. Elu, Felipe Zelaeta, Rikardo Glez. de Durana eta Ardi Ilun Blues Band

Saski Naski, sorkuntza artistikoen otzara

29 az. | 19:00 Aurkezpena



Gasteizko Euskararen Ahotsak. 33 begirada

Miel Anjel Elustondok aurkeztuta eta gidatuta

Badihardugu elkartearekin eta Euskara Zerbitzua-ekin elkarlanean

30 og. | 19:30 Kontzertua



Falerina Taberna

Afrika

Sua diskoaren aurkezpena

Eskilarapeko Soinuak, formatu bakarreko kontzertuen zikloa

19/11/07 > 20/01/07 Deialdia



Kultur proiektuak elkarrekin

- Crowdfunding-ean laguntza eta 2000 €-ko ekarpena
- 16-35 urte bitarteko gasteiztarrei zuzenduta
- Proposamenak bidaltzeko: oihaneder@oihaneder.eus

► Info ++: itsulapikoa.eus/deialdiak/batera

Urtarrilak 17 > Otsailak 02



ALEA



Zortziak 5 ALEAN

5 urteko ibilbidea argazkitan • Inaugurazioa: urtarrilak 17, 19:00etan

ALEA-ekin elkarlanean

Erakusketa

oihaneder.eus

Fray Zacarias Martinez, 2 - Vitoria-Gasteiz

LAGUNTZAIKAK

Diario

ALEA

berria

radio vitoria

ANTOLATZALEA



OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala